

# Etxebizitza, Espekulazioa eta Okupazioa

zabaldubegiak@sorginak.com

# GAUR EGONGO KALEKO EGOERA AZTERTZEN

**Gaur egun etxebizitza, luxu bihurtu da jendartearen gehiengoarentzat.**

Kapitalismoak, etxebizitza, jende ororen esku beharko lukeen eskubidea, merkantzia bihurtzea lortu du aspaldidanik. Sistema honen logikarekin bat eginez, oinarrizko beharra dena, sekulako negozioa bihurtu du gutxi batzuentzat. Bereziki adierazgarria izan da azken urteotako krisiaren abiapuntua, nolabaiteko eraikuntza burbuilaren eztandaren ondorioz gertatu izana. Gutxi batzuek sortutako arazoa, jendarte osoarengan eragina izan du. Prozesu honetan, eraikuntza enpresak, "konstruktorak" edota jabe pribatuek, bankuek edota aurrezki kutxek sekulako irabaziak izan dituzte eta izaten jarraitzen dituzte, aurrez aipatu bezala, oinarrizkoa den behar batekin.

Gaur egun etxebizitza, luxu bihurtu da jendartearen gehiengoarentzat. Hile bukaerako soldataren gehiengoa (hau izatekotan) hipoteka edota alokairuak ordaintzeko erabiltzen da eta honela, langabetuak, gazteak, prekarioak, emakumeak, etorkinak... Hau da, jendartearen parte garrantzitsu bat, "luxu" hori eskuratzeko arazo larriak izaten ditu.

Berekoikeria eta diru-gosearen ondorioz, alokairuak izugarri igo dira azken urteotan, eta hauxe izan da orain arte, egoera ekonomiko eskasena duen jendeak etxebizitza baten erabilera bermatu ahal izateko izan duen aukera bakarra. Oraingo egoera ekonomikoan eta delako krisiaren ondorioz, jabetza bat eskuratu nahian zebiltzan pertsonen egoera ez da askoz hobea, maileguak ordaindu ezinean dabiltzan familia asko, kanporatuak izaten ari dira bankuengandik. Euskal Herrian, 2007tik 7000 kanporaketa baino gehiago egon dira. 7 familia eguneko haien etxeetatik kanporatuak, banku, aurrezki kutxa edota mailegu emaileengandik.



Egoera latz honen aurrean, gure eskubideen defentsan aritu beharko luketen instituzio ezberdinek kinka larrian dauden pertsonen egoera okertu baino ez dute egin. Instituzioek paper berezia jokatu dute, eraikuntzaren negozioa garapen ekonomikoaren ardatz bezala aurkeztuz. (Lur zoruaren lege desberdinen bitartez, eraikitze politikak, politika fiskala...)

Bestalde, kapitalismoak biztanleria bere egiten jakin du, etxebizitza jabetzaren eskuratze erraza pozoindutako goxoki bat bailitzan dastatzera emanez, 50 urtetaraino iristen diren hipotekak baliatuz. Horrela jendeari jarrera kontserbadoreagoak har ditzan erraztuz. Nork hartuko du parte greba batean 50 urtetako hipoteka bat gainean izanda? Are eta larriagoa iruditzen zaigu etxebizitzaren negozio arrakastatsuaz baliatuz, euren bigarren etxebizitzekin espekulatzen duten klase ertaineko biztanleriaren kasua, horrela milaka espekulatzaile txiki sortuz eta etxebizitza bat eskura izatea zailtasun handiagoa bihurtuz.




Oparoaldi ekonomikoaren garaian, etxebizitza bat eskuratzea biztanleriarentzat luxu bat izaten jarraitzen bazuen, (prekarioak, langabetuak, emakumeak, gazteak, etorkinak), krisi garai hauetan, egoera larriki belztu da. Kalera so egitea besterik ez dugu.

Guzti hau gutxi balitz, Euskal Herriko etxebizitza hutsen kopuruak ez du panorama hobetzen. 2005eko datuen arabera Euskal Herrian 245.000 etxebizitza huts genituen. Datu hauek eguneratzen direnean kopurua ikaragarri gehituko da, azkenaldian eraiki diren etxebizitza ugariak kontutan hartuz gero.

Aipatutako egoera testuinguruan sartzeko, gure ingurune gertuenera joko dugu: Horrela, azken urteotan Gasteizen etxegintza %17 igo den

bitartean biztanleria %3 besterik ez dela igo ikus dezakegu. Datu hauei etxebizitza hutsen datua gehitu behar zaio (%17 2005ean). Argi ikus daitekeenez, gure ingurunea ez dago lehen aipatutako egoeratik at non "konstruktorek", bankuek eta eraikuntza enpresek beraiek nahi dutena egiten jarraitzen duten. Bestalde, esan behar da Gasteiz mailan 35 eraikuntza enpresa daudela, konstruktorak eta lursail administratzaileak kontutan hartu gabe. 2011 urtean, Araban, kaleratzeak 500 baino gehiago izan dira eta kopuru hau handitzen doa. Bereziki langabezi eta soldaten datuak kontutan hartzen badiztugu.

**Egoera larri honen aurrean, gazte batzuk etxebizitza bilatzeko aukera berri eta propioen bila hasi gara.**

Gazteei dagokienez, etorkizuna ilun agertzen zaigu. Urteko bataz besteko soldata 8.000 eurokoa da, eta Araba mailan 7.500 gazte daude langabezian hauetarik 6.040 Gasteiztarrak direlarik.



Beraientzat eta guretzat, independizatu eta etxebizitza bilatzeko ametsa, amets-gaizto bihurtzen ari da. Egun kontratu ziztrin batekin edota bizitza osorako lanpostu lehergarri batekin ere ezin dugu eskaintzen dizkiguten Babes Ofizialeko etxebizitza horietako bat eskuratu.

Beste alde batetik, bazterketa soziala salatzen duten kolektiboek azaldu bezala, izugarrizko murrizketak ari dira gertatzen diru laguntza sozialetan. Egoera honetan, beraien etxebizitza galdu eta kalean dauden familiek ere ez dute horrelako laguntza bat eskuratzeko aukerarik.

Egoera larri honen aurrean, gazte batzuk etxebizitza bilatzeko aukera berri eta propioen bila hasi gara. Gasteizko Alde Zaharreko etxebizitza hutsen datuak bilatu ditugu, eta %18,97 a hutsik daudela jakin izan dugu 2007-ko informe batek argitaratu bezala. Honek zera esan nahi du, Alde zaharrak eskaintzen dituen 4252 etxebizitzatatik, 807 hutsik daudela. Etxe guzti hauek beraien bizi funtzioa galdu dute, jada ez dira etxebizitzak, espekulazio tresna baizik. Gainera, auzo politika urbanistikoen lehentasuna beste mota bateko zerbitzuek hartu dute; esaterako turismoa, museoak, modako komertzioa etab. eraikin hauek bete dezaketen funtzio soziala ahaztuta.

Ezin ditugu alde batera utzi gure auzoak dituen beharrak, gaur egun instituzioek alde batera utzi dituztenak. Modu honetan, PERI (Plan Estratégico de Revitalización Integral) bezalako proiektu instituzionalaren aurrean, auzoaren erantzunaz jabetu gara. Proiektu honek behar sozial, ekonomiko eta kulturalak alde batera utzita auzoa berriztu nahi du. Adibide modura, gaur egun 2.000 etxebizitza daude egoera txarretan, eta hauek berrikuntzarako ez da diru laguntzarik eskaintzen; ordea, "kalitatezko Komertzioa" bultzatzeko bai (museoak, "enkantodun hotelak" edota negozio enpresarial berriak- hainbat taberna berri esaterako). Bitartean, auzoak ez du osasun zerbitzu egoki bat, ezta gaur egun txiki geratu den eskolak espazio handiago bat. Azken urteotan, auzo kolektiboek, Alde zaharreko biziberritze proiektuaren kudeaketa desegokiaren inguruko salaketak ari dira egiten, ARICHek burutu duena hain zuzen. Gestio ilun honek, auzo partaidetza alde batera utzi du. Horregatik, auzokideen artean auzolan desberdinak ari dira bultzatzen, non espazioen kudeaketa soziala bultzatzen den.Ez soilik instituzioek egiten ez dutelako, baizik eta auzokideen arteko antolaketa hutsak balore berezia duelako. Espazio hauek auzokideen lan eta koordinazioari esker kudeatzen dira; Auzolana Frontoia, Etxauri plaza, bolatokia etab.



# IKUSTEKOAK IKUSITA ... GUK OKUPATZEN DUGU!

Guretzako, okupatzea inertziaz edo derrigorrez jarraitzen ditugun eskemak zalantzan jarriz gure bizitzen jabe izatea da. Modu honetan ulertzen dugu okupazioa, espekulazioaren eta gure bizitza prekarioaren aurkako erantzun zuzen gisa alegia eta beharrezkoa ulertzen dugun eraldaketa sozialaren aldarrikapenarekin uztartzen dugu.

**Orain eraikitako guzti hau defendatzeko garaia da, DESALOJO arriskua bertan baitugu**

Honetaz aparte eta bizi proiektu zein proiektu sozialak, hezkuntzakoak, aisialdikoak, … gauzatzeko eremuen falta ikusita benetan behar ez dituzten edota espekulatzeko bakarrik dituzten eskuetan dauden eremu hutsak askatzearen alde gaude. Egoera honetatik gure kabuz askatzeko eta behar hauek asetzeko erantzun zuzen bezala ulertzen dugu, edozein instituziori eskean ibili gabe.

Legeak eta ordenak, beste askotan bezala, ezberdintasunak mantentzeaz arduratzen da eta lehenago etxebizitzaren arazoarekin ikusi dugun bezalaxe handiagotzeaz ere bai. Era berean okupazioaren kriminalizazioak lege eta orden hori zalantzan jartzen dituzten jarrera eta proiektuak gutxiesteko balio du. Gure aldetik prest gaude kriminalizazio hori gainditzeko, zilegitasuna eta legalidadea sarritan bate ez datozela argi dugulako.

Hortaz, zein da kriminala? Zeinek desalojatzen edo desjabetzen du, jendea kalean utziz? Eta zeinek itzultzen die bizitza ahazturan eta utzikerian sartutako espazioei, beharrak asetzeko?




Guretzako okupatzea autogestioaren aldeko apustua egitea da. Beraz, gure edozein behar gure baliabide propioekin asetzeko ahalegina egiten dugu. Autogestioa ikasteko aukera bihurtu zaigu, edozein kontu esfortzu kolektiboaren bitartez aurrera eraman ahal izatea, elkar lagunduz eta gure irudimenaz baliatuz. Eta batez ere, inortxok ere ez dakienez guk baino hobe zeintzuk diren gure benetako beharrak, ez gaudelako prest besteen gain uztera gure erabakiak.

Okupazioa eta asanblada, eskutik doazela deritzogu. Honek ikasketa prozesu luzea (sekula amaierarik ez duena!!) suposatzen duela uste dugu, inongo eskolak erakutsi ez digun bizitzeko eredu bat, hierarkiarik gabekoa, non guztion hitzak eta erantzunkizunak pisu berezia hartzen duen. Hierarkiatik askatzen ditugun espazio hauetan sexismoak lekurik ez duela ulertzen dugu, guztion artean rolek, estereotipoek, generoak edo bizitzeko moduak baldintzatzen ez duen harreman eredu berriak eraikitzen saiatzen gara beraz.

Egun gure gizartea indibidualismo markatuenaren gatibu da. Bakoitza bere mundu pertsonalean isolatzen da eta giza-harremanak guztiz desitxuratu dira. Hau, jendeak dituen arazo afektibo eta psikologikoen arrazoi nagusia izanik. Horren aurrean, bizitza kolektiborako hautua egiten dugu, gure arteko harremantzeko esparruak irekiz, elkarrekin espazio eta gauzak elkarbanatuz, arazoak guztion artean konponduz…

Etxe honen aukerak ikusita, hasierako asmoa izan da erabilera anitzak ematea, hau da etxebizitza hutsetik haratago joatea. Gure borrokak aurrera eraman, ikasi, elkarbanatu eta abarrerako esparru bat izatea nahi dugu. Horregaitik, azpiko lokalak herri mugimenduarentzat lanabes izatea nahi izan dugu. Guzti hau bizi garen auzoan elkar eraginez. Beheko lokalak, talde desberdinek erabiltzen dituzte, asteartero afari begetarianoak eskeintzen dira eta gure kezkak kaleratzeko jardunaldiak burutu izan ditugu.

Orain eraikitako guzti hau defendatzeko garaia da, DESALOJO arriskua bertan baitugu. Gure prestutasuna eta zuen konplizitateak bat egitea espero dugu.

Gasteizen, 2012ko Otsailaren 10ean.



# Vivienda, Espekulación y Okupación

zabaldubegiak@sorginak.com

# UN VISTAZO A LA SITUACIÔN DE LA CALLE

El Capitalismo ha conseguido convertir la vivienda como un bien totalmente necesario en pura mercancía. Esto ha permitido, desde de la lógica de este sistema injusto y corrupto, crear un estupendo negocio en base a esta necesidad, donde los beneficios por supuesto se acumulan en los bolsillos de unos pocos. Especialmente grave ha sido lo sucedido en los últimos años, donde amparándose en los pelotazos urbanísticos y la especulación más brutal se ha forjado la burbuja inmobiliaria, motor de la crisis que padecemos actualmente. En este proceso obtuvieron y siguen obteniendo actualmente suculentos beneficios, las empresas constructoras, promotoras inmobiliarias y propietarios, así como los bancos y las cajas de ahorros. Beneficios que, repetimos, se sustentan en la necesidad vital de la población de disponer de una vivienda sea de la forma que sea.

**La vivienda es hoy, más que nunca, un bien de lujo para la mayor parte de la población.**



La vivienda es hoy, más que nunca, un bien de lujo para la mayor parte de la población. La mayoría de los ingresos (si es que se tienen) se emplean en pagar hipotecas y alquileres. De esta forma gran parte de la población queda excluida del acceso a la vivienda. Hablamos de los precarios, las paradas, las familias mono-parentales, los jóvenes y la población inmigrante.

La codicia y la especulación han repercutido también en el precio del alquiler que, recordemos, es la única forma de acceso a la vivienda para las capas más pobres de la población. Además, debido a la crisis económica que esta situación ha generado, es creciente el número de personas que, al no poder pagar sus hipotecas o alquileres, son desahuciadas de sus casas y expulsadas a la calle. En Hego Euskal Herria son ya más de 7.000 casos desde que empezó la crisis en 2007, lo que representa a siete familias expulsadas diariamente de sus hogares por los bancos, cajas de ahorros, prestamistas privados y demás alimañas.

Ante tal escenario, las instituciones públicas, también directas responsables de esta problemática, solo agravan la mísera situación en la que se encuentran cada vez más sectores de la población con respecto a la vivienda. Las instituciones han sido clave en este negocio inmobiliario, maquillándolo como un eje de desarrollo económico mediante diversas leyes del suelo, política fiscal y política de urbanismo, mientras que aprobaban en 2007 el llamado desahucio express para facilitar la expulsión de inquilinos que se retrasan en el pago o como en el caso del servicio vasco de alquiler de vivienda social “Alokabide”, aplican mano dura a sus morosos expulsándolos de sus casas

Por otro lado, el capitalismo ha sabido poner a su merced a la población haciéndoles probar la golosina envenenada del fácil acceso a la vivienda en propiedad, gracias a sangrantes hipotecas de hasta 50 años. Que por cierto hace que la gente tenga actitudes más conservadoras. ¿Quién va a la huelga cuando esta pagando una hipoteca? Más grave aún nos parece el caso de las clases medias que utilizaron el negocio boyante de la vivienda para especular con sus segundas residencias, patrimonio heredado o usar estos como forma de inversión. De esta forma, generando miles de pequeños especuladores, el acceso a la vivienda se hace aún más inaccesible si cabe.

Si en los tiempos de bonanza económica la vivienda seguía siendo un lujo para gran parte de la población (precarias, parados, mujeres, jóvenes, inmigrantes), en estos tiempos de crisis el problema se ha acentuado sobremanera. No hay más que echar un vistazo a la calle.

Si todo esto nos parece suficientemente aberrante, más escandaloso es aún teniendo en cuenta las cifras de viviendas vacías. Según datos de 2005 teníamos 245.000 viviendas vacías en Euskal Herria, dato que cuando se actualice será mayor debido al número de viviendas construidas en los últimos años.

Para contextualizar la situación descrita nos pararemos a visualizar los datos sobre nuestro entorno más cercano. Así podemos ver como, mientras la construcción creció en los últimos años un 17% en Gasteiz, la población solo lo hizo en un 3%. A estos datos debemos sumar el de las casas vacías, que rondaba el 17% en 2005. Este será aún más desproporcionado cuando se actualice el censo. Por lo tanto nuestro territorio no se queda al margen de la situación anteriormente descrita en la que, recordemos, han campado a sus anchas constructoras, promoto-

ras inmobiliarias y bancos. Mientras el asentamiento de estos negocios en nuestra capital es todavía importante (hoy en día existen 35 inmobiliarias con sede en la ciudad, sin contar con administradores de fincas o constructoras que también se dedican al negocio de intermediación), en lo que llevamos de año (diciembre de 2011), el número de desahucios ha superado los 500 en todo Araba y sigue creciendo. Especialmente teniendo en cuenta los datos socio-económicos sobre el paro y los salarios.

**Ante este difícil panorama, algunos jóvenes hemos comenzado a buscar nuestras propias soluciones a la hora de buscar una vivienda.**



Con respecto a la población joven los horizontes no son más halagüeños, teniendo en cuenta el sueldo medio de 8.000 euros al año o la cifra de 7.500 jóvenes en paro en todo Araba, de los cuales 6.040 pertenecen a Gasteiz. Para ellos, para nosotras la realidad del acceso a la vivienda y la emancipación dejó de ser un sueño para convertirse en una pesadilla. Donde ni siquiera aspirando a un contrato basura o a ser explotado de por vida podremos aspirar a esas viviendas de Protección Oficial que nos ofrecían.

Por otra parte, como denuncian los colectivos en contra de la exclusión social, las ayudas sociales han sido reducidas de tal manera por los recortes sociales que han dejado de ser una herramienta hasta en situaciones tan alarmantes como en las de las familias que se encuentran literalmente en la calle.

Ante este difícil panorama, algunos jóvenes hemos comenzado a buscar nuestras propias soluciones a la hora de buscar una vivienda. Investigando datos sobre viviendas abandonadas en el casco viejo de Gasteiz nos hemos encontrado con que el 18,97% están en desuso (según un informe de 2007, lo que nos hace pensar que hoy en día el porcentaje será mayor). Esto significa que, de las 4.252 viviendas que ofrece el casco, 807 están vacías. Todas estas casas han dejado de cumplir la función para la que fueron creadas, ya que ya no son hogares. Sin embargo las políticas urbanísticas proyectadas en el barrio muestran que se priorizan otras funciones cómo turismo, museos, comercio de moda, etc. a las funciones sociales que por ejemplo éstas viviendas podrían ofrecer.

No podemos obviar la situación de nuestro barrio, Alde Zaharra, donde las carencias del vecindario siguen sin estar resueltas. De este modo también queremos hacer eco de la respuesta popular del barrio frente a proyectos institucionales como el PERI (Plan Estratégico de Revitalización Integral), el cual impulsa un modelo de rehabilitación que deja desatendido casi totalmente el principal problema del barrio, esto es sus graves carencias sociales, económicas y culturales.

A modo de ejemplo diremos que, mientras en el barrio existen cerca de 2.000 viviendas en malas condiciones sin poder acceder a ayudas para su rehabilitación, las instituciones lo que hasta ahora han promovido es lo que ellos califican como "comercio de calidad", museos y proyectos como el semillero de empresas u hoteles con encanto. Mientras tanto, el vecindario sigue sin un ambulatorio en condiciones o con una escuela que cada vez se queda más pequeña, aunque todos alaben su labor educativa. Durante estos últimos años los colectivos vecinales del barrio, han estado denunciando la gestión que se viene haciendo con los fondos que se recaudan para el casco viejo desde la ARICH. Gestión caracterizada por el oscurantismo y la nula participación vecinal. Ante el hecho de que las prioridades del barrio no se cubrían desde estas instancias, se han puesto en marcha diferentes dinámicas de auzolan, donde las propias vecinas se organizan para recuperar espacios y gestionarlos de manera popular. El frontón Auzolana, la recuperación de la plaza Etxauri y la bolera son claros ejemplos de lo que somos capaces de lograr mediante la auto organización colectiva.



# VISTO LO VISTO... NOSOTRAS OKUPAMOS.

**Ahora, es el momento de defender todo lo construido**

Para nosotras okupar significa ser un poco más dueñas de nuestras vidas, cuestionándonos los esquemas que seguimos por pura inercia u obligación. De esta manera entendemos la okupación como herramienta de respuesta directa contra la especulación y nuestra miseria de vida, compatible con una transformación social que entendemos necesaria.

Además, siendo la carencia de espacios que tenemos para llevar a cabo nuestros proyectos tanto de vida como sociales, educativos y de ocio un problema real, apostamos por la liberación de espacios vacíos en manos de quién no los necesita realmente y solo los quiere para lucrarse a costa de la miseria ajena. Consideramos esto como una respuesta directa para cubrir estas carencias y para liberarnos de esta situación por nosotros mismos, sin necesidad de mendigar a ninguna institución.

La ley y el orden, como en tantas ocasiones, se encargan de perpetuar las desigualdades y, como hemos visto anteriormente en la problemática de la vivienda, incluso de ahondarlas. A su vez, la criminalización de la okupación sirve para despreciar toda actitud y proyectos que ponen esa ley y ese orden en cuestión. Nosotras, sin embargo, estamos dispuestas a saltar por encima de la criminalización, ya que estamos totalmente convencidas de que lo que hacemos es totalmente legítimo y adecuado a las circunstancias. Así las cosas, ¿quién es el criminal? ¿Quién desaloja y desahucia dejando a la gente en la calle o quién devuelve la vida a espacios, víctimas del olvido y del deterioro, por pura necesidad?

Para nosotras okupar es apostar por la autogestión. Esto quiere decir que, si tenemos una necesidad, hacemos todo lo posible por cubrirla entre todas y con nuestros propios medios.

Autogestión es también ser capaces de aprender a hacer algo y llevarlo a cabo mediante el esfuerzo colectivo, apoyo mutuo e imaginación para así sacar la máxima utilidad a todo lo que se encuentre en nuestro entorno y a nuestro alcance. Y como somos nosotros solamente las que sabemos que es lo que realmente queremos o necesitamos, no nos quedaremos de brazos cruzados esperando a que otros lo hagan por nosotras.

Entendemos la okupación como sinónimo de asamblearismo. Esto conlleva un proceso de aprendizaje vital, que ninguna escuela nos ha sabido enseñar, sin jerarquías y donde la palabra de todas cuente lo mismo. Tratamos de liberar estos espacios del sexismo y crear entre nosotras nuevos modelos de relación que no estén condicionados ni por los roles, ni estereotipos, ni el género o la manera de vivir la sexualidad que tenga cada una de nosotras. Esto es, intentamos que sean espacios en los que el machismo o la homofobia no tengan lugar. Como hemos apuntado anteriormente, todo ello es parte de un proceso de aprendizaje que nunca damos por finalizado.

Actualmente nuestra sociedad es presa del individualismo más marcado. Cada uno se encierra en su mundo personal y las relaciones humanas brillan por su ausencia. Esto es una causa importante de que se tengan cada día más problemas afectivos y psicológicos. Preferimos convivir de manera colectiva, lo que hace mucho más fácil tanto la necesidad natural de relacionarnos como el poder llevar a cabo proyectos, compartir las cosas y resolver los problemas o las necesidades.




Por último queremos dejar claro que nuestra intención nunca fue que este espacio sirviera exclusivamente como vivienda. Se pretende que este también sea un lugar en el que compartamos, aprendamos, llevemos a cabo nuestras luchas, etc. Todo esto interactuando con el barrio en el que vivimos, haciéndolo de diferentes maneras: los diferentes colectivos tienen un espacio en el que reunirse, todos los martes se ofrecen cenas vegetarianas para quién quiera acercarse a compartirlas y se han llevado a cabo diferentes jornadas para conocer el espacio, sus gentes y sus preocupaciones e intereses.

Ahora, es el momento de defender todo lo construido, ya que se cierne sobre la casa la amenaza de desalojo. Para ello es imprescindible toda vuestra complicidad y apoyo.

En Gasteiz, 10 de febrero de 2012